AHOLKULARITZA

info@consumer.es

Idatzi eta zure arazoa konpontzeko bide egokiena zein izan daitekeen aholkatuko dizugu

Auzia aztertu ondoren, **CONSUMER EROSKIren** zerbitzu juridikoek esango dizute zure kasuan jarduera egokiena zein izan litekeen. Orientabidea baino ez da. Kasu bakoitzaren ezaugarriek sententzian eragina izan dezakete.

Bidali arazoa azaltzen duen gutuna. Eta berarekin batera auziaren inguruko dokumentazioaren fotokopiak. Eskura dituzunak. Orrialdeotan argitaratzen duguna izango da auziari emango zaion erantzun bakarra.

CONSUMER EROSKI aldizkaria
San Agustin auzoa z/g
48230 Elorrio
(Bizkaia)

Bigarren etxebizitza ezin ordaindurik dabil, eta jarri duen diruaren zati bat eskuratu nahi du

Apartamentu bat ordaintzen gabiltza baina senarra lanik gabe geratu da. Aurki 11.000 euro jarri behar ditugu eta horri dagokion BEZa eman. Ez gara gai horri erantzuteko, eta utzi egin beharko dugu. Ba ote da modurik jarri dugun diruaren zati bat behintzat eskuratzeko, edo dena galduko dugu?

Kontratu pribatuen klausuletako batek esaten du ordaintzeko geratzen den zatietako baten ordain-epe finkatuak huts eginez gero, sal-tzaileak bi aukera dituela: erosleari eska diezaioke ordain ditzala geratzen diren zatiak, edo, bestela, bertan behera utz dezake kontratua. Oraingo honetan, itxura denez, kontratua etetea da aukerarik egokiena. Saltzaileak, beraz, erosleari zer arazo ekonomiko sortu zaizkion entzun ondoren, burofax bat edo notario-dei bat bidali behar lioke hari, esanez kontratua bertan behera geratzen dela. Eta kontratua eteten denean, saltzaileak jaso duen diruaren % 50 berekin atxikiko du, baina sekula ez higiezinak balio duenaren % 10 baino gehiago, nahiz eta gero gerta daitekeen epaitegiek beste kopuru bat finkatzea mugatzat.

Negoziazioak egiteko, Kontsumitzailearen Bulegoan eska dezakezu laguntza. Komeni da epaitegietara iritsi aurretik ados jartzea, eta saltzaileari dokumentu bat sinaraztea, non baieztatuko duen ez duela auzitara edo ebazpen batzordeetara joko kontratuan hitzartu dituzuen kopuruak baino handiagoak eskatzeko.

Kontratuan klausularen bat ageri bada esanez ebazpen-auzitegi jakin bati dagokiola edozein desadostasun konpontzea, hori baliogabetzeko eska daiteke Kontsumitzailearen Bulegoaren laguntzaz, Kontsumoko Ebazpen Batzorde batera jotzea edo auzitara. Kontsumoko Ebazpen Batzordeak doakoak dira, eta ez da behar izaten ez abokaturik ez prokuradorerik, nahiz eta lagungarria izan daitekeen abokatu bat hartzea (aurrez, hala ere, jakin beharra dago zenbat kobratuko duen saltzailearekin negoziatzeagatik eta, auzitara jo gabe, dirua itzultzeko akordio idatzi bat egiteagatik). //

Alokairuan bizi da pisu batean, eta galdara matxuratu egin da; etxejabeak, ordea, ez du hartu nahi konpontzeko ardura

Duela gutxi, etxebizitza bat alokatu dut. Galdara matxuratu da, eta jabeak esan dit nik ordaindu behar dudala, sinatu nuen kontratuak esaten duelako errentariari dagokiola matxurak ordaintzea. Legezkoa da hori?

Hiri-Errentamenduen Legeak esaten du, 21. artikuluan, errentatzailea behartuta dagoela behar diren konponketa guztiak egitera, etxea bizi-baldintza egokietan egon dadin eta adostutako erabilerari erantzun diezaion, eta hori egitegatik ez duela eskubiderik errenta igotzeko. Salbu eta errentariaren erruz gertatu bada matxura. Eta esaten du, halaber, egunerokoko erabilerak eraginda egin behar izaten diren konponketa txikiak errentariak hartu beharko dituela bere gain.

Matxura ez bada sortu errentariaren erruz, jabeak ordaindu behar du hura konpontzea, nahiz eta kontratuak esaten duen errentariak bere gain hartuko dituela konponketa-gastu guztiak. Hiri-Errentamenduen Legeko 21. artikulua nahitaez betetzekoa da, eta aldeek ezin dute aldatu euren borondatez. Lege horren 6. artikuluak esaten duenari jarraiki, legearen bigarren tituluko arauak errentariaren kaltetan edo azpierrentariaren kaltetan moldatzen dituzten xedapenak baliogabeak dira; eta 21. artikulua, hain zuen, bigarren tituluan dago. //

epaiak

ETXEJABE ELKARTEAK
Igogailua jartzea

Behealdeko bizilagunek ere ordaindu behar dute igogailua jartzea eta haren mantentze-lanak egitea

Etxejabe elkarte batek bi igogailu jartzea erabaki zuen, gehiengoa –hiru bostenak– horren alde agertu baitziren batzarrean. Etxejabe guztiek ordainduko zutela erabaki zuten, baita behealdekoek ere, eta igogailua jartzeak kalteak eragingo zizkionez ondoko lokal bati, haren jabea gastu batzuetatik libre utzi zuten (igogailua konpontzeko, ordezkatzeko eta mantentzeko gastuetatik, alegia). Behealdean bizi den jabeetako batek, ordea, salaketa jarri zuen etxejabe elkartearen aurka, eta bi akordioak baliorik gabe utz zitzala eskatu zion epaileari, berak ordaindu beharrik ez izateko. Baina galdu egin zuen epaiketa. Espainiako Auzitegi Gorenak erabaki zuen, 2008ko abenduko epai batean, bi akordioak baliozko direla, eta argudiatu zuen erabaki horiek ez direla zertan aho batez hartu. Igogailu zerbitzua jartzeari buruzko arau espezifikoa aipatu zuen, eta honako oharpen hau gehitu zuen, gainera: arau hori garaian garaiko gizarte-egoeraren arabera interpretatu behar dela (Kode Zibilaren 3. artikulua). Eta gaur egun, eraikuntza berriei buruzko arauetan, igogailua derrigorrezkotzat jotzen da eraikinak hiru solairu edo gehiago baditu; eraikin zaharretan, berriz, pertsona ezinduen beharrei erantzuteaz gain, eraikin jabeei ere, gutti-guztiei, onura egiten die igogailuak, bai haien ongizate materialari dagokionez, bai eraikin osoaren balioari dagokionez. //

KONTRATUAK
Prezioak eta aurrekontuak

Hotz klinika batek aurrekontuan ageri den baino 10.000 euro gehiago eskatu dizkio

Kontsumitzaile batek aurrekontua eskatu zion hotz klinika bati, sei inplante egiteko. 17.000 euroko aurrekontua eman zioten eta onartu zuen. Baina sei beharrean, zortzi inplante egin behar izan zizkioten, eta klinikak 27.000 euro eskatu zizkion. Kontsumitzaileak 21.000 euro ordaindu zizkien guztira, bi inplanteak barne, baina uko egin zion 27.000 euro ordaintzeari. Klinikak salaketa jarri zuen haren aurka, baina galdu egin zuen epaiketa. Valentziako Probintzia Auzitegiko zazpigarren atalaren iritziz, erabiltzaileak jarri zuen diruak ongi ordaintzen zuen aurrekontuz kanpo egin zioten lana, eta halaber baieztatu zuen enpresaburu eta profesionalen zeregina dela obra-errentamenduko kontratuetan informazio egokia ematea kostuari buruz eta aurreikusitako emaitza lortzea (kasu honetan, kontratu mota hori zuten egina). 2008ko maiatzaren 7koa da epaia. //

ORDENAGAILUAREN BERMEA

Ordenagailu eramangarria lau aldiz matxuratu zaio, eta zerbitzu teknikoak ez du aintzat hartu nahi bermea

Kontsumitzaile batek ordenagailu eramangarri bat erosi zuen, eta lehen sei hilabeteetan hiru matxura handi izan zituen. Laugarren aldiz matxuratu zitzaionean, zerbitzu teknikoak uko egin zion bermea ezartzeari, urtebete igaro zelako erosi zuenetik eta, horrez gain, azpialdeko tapa eskuztatua zuelako eta horrek bermea galtzea zekarrelako. Kontsumitzailearen Bulegotik erreklamazioa bidali zioten zerbitzu teknikoari, baina deus lortu ez zuenez, kontsumitzaileak auzitara eraman zituen saltzailea eta ekoizlea, eta eskatu zuen erositako ondasuna alda ziezaiotela eta ordaina eman ziezaiotela kalte-galerengatik. Eta irabazi egin zuen epaiketa. Honako hau argudiatu zuen Madrilgo Probintzia Auzitegiaren hamahirugarren atalak (2008ko urriaren 28koa da epaia): kontuan hartu behar zela ordenagailua behin eta berriz matxuratu zela; saltzaileak uko egin ziola zaharraren truk berria emateari; Kontsumitzailearen Bulegoan erreklamazioa jarri zuela; geroztik egindako konponketek ere bazutela beren bermea (hiru hilekoa), bi urteko bermeaz gain; ez dela ekoizlearen edo saltzailearen zeregina bermearen aldiak mugatzea edo zehaztea, edo erosleei aukera bakarra inposatzea (ordenagailua konpondu beste irtenbiderik ez eskaintzea, alegia), eta are gutxiago aurrez egindako konponketek emaitza onik eman ez zutela ikusita; eta ordenagailua gaizki erabili zuelako salaketak ez zeudela frogatuta, eta susmo eta usteetan baino ez zirela oinarritzen. //

ANTZEKO AUZIETAN ERABAKIAK ETA EPAIAK DESBERDINAK IZAN DAITEZKE

Gure atal honetan auzitegiek emandako epaiak jasotzen ditugu. Edukiari begiratzen diogu eta era guztietako zerbitzu eta produktuen kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat erabilgarri izan daitezkeenak aukeratu. Baina ezin da ahaztu, antzeko gertaeren aurrean erabakiak desberdinak izan daitezkeela. Kontuan izan behar dira, besteak beste, eskura dauden frogak, alderdi bakoitzaren egoera eta epaia ematen duen tribunala.